

# Karkara

*karkara.eus*

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2015eko azaroaren 27a · 367. zenbakia. 26. urtea



## Zein da Orion, euskararen osasuna?

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da. Hori aitzakiatzat hartuta, euskararen erradiografia egin dugu, osasun egoera jakiteko.

**9**

**Elkarrizketa**  
Andoni Larrarte

**10**

**Gaia emanda**  
Ekain Zubizarreta

**23**

**Elkarrizketa**  
Aldaz eta Garate

**29**

**Kritika**  
Urdangarin

# HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

**Iratxeren**  
altzari-denda

**Josebaren**  
gimnasioa

**Aitorren**  
okindegia

**Elsaren**  
fruta-denda

**Lauraren**  
zapata-denda



Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende **langilea**,  
**lana** sortu eta gure kaleak **bizirik** mantentzen dituenak.

**HERRIKO DENDEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ERENOMIAZEN GARAPEN ETA  
LEHARDITASUN GAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

367

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

## Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

## Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

## Erredaktore burua

Miriam Garcia

## Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,  
Olatz Artola,  
Lore Berasaluze,  
Iñigo Exposito,  
Jon Garate,  
Elizabete Manterola  
eta Rikardo Uzkudun

## Publizitatea

Idurre Telleria

## Ale honetako

### kolaboratzaileak

Ander Etxeberria,  
Iñaki Iturain,  
Ibai Jauregi,  
Iñigo Gaiton,  
M. Uria eta  
Ekain Zubizarreta

## Diseinua

Saioa Perona

## Banatzaleak

Rodolfo Jimenez (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

## Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

# TOKIKOM



Garberan alaba galdu zaito Gurrutxagari.

## HASI BERTSOTAN

**IÑAKI GURRUTXAGA** (DOINUA: ETAREN SU ETENETIK)

Gaia: Zure izena bozgoragailuetatik esaten ari dira, behin eta berriz.

**1**

Sarri izaten da eta beherapen garaia da, kotxean sartu arrankatu ta igo autopistara. Bidea garbi zegoen ez arazo ta ez traba, intermitentea jarri ta igo naiz Garberara. Enkarguak egiteko hartu nahi nuen patxara, umea neukan eskutik hara hara hara! Aurten hirugarren aldiz galdu det nere alaba.

**2**

Nerbioso jarri naiz eta laster hasi naiz korrikan, pasilloan gora behera behin nahikoa ez ta bitan. Marka da hau pasatzea gizon berari sarritan, ez det berriz egingo hau pentsatzen nuen egitan; baina altabozetatik han hasi dira praktikan: Nun da Iñaki Gurrutxaga behin nahikoa ez da birritan iru(d)itzen zait emaztea ari zaidala erritan!

**3**

Alaba baino lehenago bilatu nahi aitzakia, ezta errexa izango etxera lasai joatia. Igual itxiko didate berriz bertako atia, baina aurre egin behar det azaldu eta pakia; hartu behar det, hala ere, hurrengo erabakia: beti izan naiz aita bat aldrebesa ta punkia, kopetea tatuatu behar diot zenbakia!

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara  
688 859 682 (Idurre)  
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

## LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako  
Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza) diruz lagundua

## Istripuaren zain...

Egunero dozenaka haur dira Anibarko portutik eta Ibaiondotik moilatik barrena ikastolara doazenak.

Kofradia eskoratu eta hesiz inguratu ostean, udalak pibote batzuk jarri zituen moilatik Leundaneke etxeraino modu seguruan pasa ahal izateko. Tamalez, norbaitek pibote horiek erro-tik moztu zituen eta orain paso segu-rua behar zuena arrisku-gunea da. Oinezkoentzako pasabidea autoentza-ko aparkalekua da gaur egun.

Ondorioz, moilatik barrena ikastola-ra edo ibai ertzeko pasealekura iritsi nahi duen edonork gune horretan errepide erditik pasa beste erremedio-rik ez dauka, kontrako norabidean da-tozen autoei aurre eginez.

Istripu bat izateko arriskua nabar-mena da. Ez dakit zenbat haurrek pasa beharko duten handik zerbait larria gertatu arte, baina arriskua erreala da eta zerbait gerta daitekeela begi bista-koa da.

Denbora gehiago edo gutxiago pasa-ko da, baina estatistika kontua da eta hauek ez dute hutsik egiten.

Nire eskaera egoera hau konpon dezaketen arduradunei zuzendua dago, neurriak orain hartzea haur bat kotxe azpian harrapatuta dagoenean ardurak eskatzen hastea baino hobea delako ustetan. Gero, alferrik izaten dira kontuak. ■ **Guraso bat.**

## EAJ-PNVren kudeaketa lau hilabete hauetan

Orioko EH Bilduren idatzi bati eran-tzun nahian, Orioko EAJk puntu hauek argitu nahi ditu eta oriotarrei argi eta garbi azaldu zein izan den orain arteko ibilbidea lau hilabete hauetan eta jorratu diren proiektuak:

1.- Ekainean Orioko Ikastolako zu-zendaria etorri zitzaigun, Ikastolen ko-operatibak LHko lehenengo mailari kontzertazio bat kendu ziela eta. Alka-tea eta hezkuntza zinegotzia berehala hasi ziren lanean, eta uda osoan hain-bat erakunderekin bildu ostean, Eusko Jaurlaritzak Orioko Ikastolari kon-zertazio bat gehiago ematea lortu zen.

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARA ez du argitaratu-ko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den ja-kinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARA esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskuti-zak laburtzeko eskubidea.

Zigor Saizar zuzendariaren esanetan, oriotarrek edo ikastolako familiek aurreztuko dutena, nahi bezala begiratu, ia 400.000€ dira.

2.- Aurreko gobernuak urte betetik gora Zaragueta Eskolako saskibaloiko saskiak eta eskubaloiko ateak jartzearen egokitasuna eztabaidatzen igaro zuten bitartean, EAJ-PNVk lortu du horiek jartzea, zegokion finantziarioa lortuta.

3.- Euskaltegia martxan jarri da. Aurreko gobernuak irisgarritasun legedia betetzen ez zuen gune baten egokita-suna eztabaidatzen baino ez zuen jar-dun. EAJ-PNVren gobernuak, arazoa aztertu eta beharrezko finantziarioa lortu ondoren, Kosta-Tailerrean egoki-tu du horretarako lekua. Orioko Eus-kaltegia errealitatea dela esan daiteke.

4.- Ludoteka EAJ-PNVk, Jon Re-dondo buru zela, 2007-2011 legealdiko proiektua zen. Aurreko legealdian hasi ziren lanak eta orain amaitu dira, baina gaur egun dagoen egoeran egoteko ere finantziarioa lortu da.

5.- Arrantzale Kaleko bidegorriaren kasuan, Bilduk, bere proiektu propioa-ren kontra joateko helburua erakutsi du. Aurreko alkateak, Beñat Solaba-rietak, alkatetza dekretu batekin onartutako proiekturako 20.000€ko subentzio bat zegoen, aurreko legeal-dian eskatu eta oraingoan eman dena, eta badirudi Bilduk nahiago zuela diru

hori itzuli lanak egin baino. Ibilbidea Topagune Berdeak gomendatzen due-na da eta eraikitzea onartuta dago, 28.000€ lortzea baino ez zen falta. Behin EAJ-PNVk falta zen dirua lortu-ta, proiektua aurrera eramateko baka-rrik utzi duzue, nahiz eta ordura arte-koa zuek egin.

6.- Kiroldegian eta Begi-Bistanen utzi dituzuen arazoak konpondu ditu-gu. Asko hitz egiten du Bilduk prozedu-rei buruz. Orioko Udalak BPXekin zi-tuen 2014ko zorrak kitatu ditugu. Zo-rraren aitorpena e-mail bidez zegoen egina, non aurreko alkateak 2015ean ordaintzea hitz ematen zuen. Zuen agintaldia amaitu eta oraindik ere ordaintzeko zegoen. Teknikarien txoste-nek esaten zutenari kasurik egin gabe sinatu zenituzten baldintza plegu ba-tzuek eragindako zorra ordaintzeko adina diru ere lortu dugu 4 hilabete hauetan. Baliteke hori izatea hainbes-tetan aipatzen duzuen *teknikoen kon-tsulta* jarduera.

Beldurra ematen du Orioko Udala-ren zorrei begira jartzea. Tasak igotze-ko erabakia hartu badugu aurreko agintaldiak utzitako herentziarengatik izan da, Bilduren garaian izandako ges-tio negargarriaren ondorio. Ez ditugu tasak igo alkatearen soldata ordaintze-ko -aurreko alkatearena baino 304,63€ altuagoa da, hala ere-, zakar eta kaleen garbiketean dagoen 495.000€ko urteko defizitari aurre egiteko baizik. Datorren urterako Bil-duren proposamenekin, EAJ-PNVre-nak ez baitira onartuak izan, defizita 639.000€koa izango da, zakar eta kale garbiketean bakarrik. Eta gero Udala-ren egoera ez dela txarra esateko lasai-tasuna dute Bildukoek. Kontu publiko-etan onaren eta txarraren arteko des-berdintasuna horrela egiten dutela ikusita, azken lau urteetako deskala-bruak ez gaitu batere harritzen. Gaine-ra, EAJ-PNVk tasen %80 izozteko pro-posamena egin du. BILDUK, ordea, za-karrak, kiroldegia eta musika eskolakoak igotzekoa egin duen bitar-tean. Hau idatziz dago, baina bozkatz-e-rako orduan atzera egin dute Bilduko-ek. Izen bat dauka horrek gure herrian.

Lau hilabete hauetan EAJ-PNVk ga-

ratutako proiektuak aurkeztu ditugu, era zuzenean. Ez legoke gaizki Bilduk erabiltzen dituen komunikabide hauek oriotarrei aurreko lau urteetan egindakoak jakinarazteko erabiliko balira. ORAINengatik izan ez balitz, BILDUren ekarpena hutsaren parekoa litzateke. ■ **Orioko EAJ-PNV**

## Elkartasun tonbola

Aurten ere, urtero bezala, Orioko ikas-tolako DBH4ko ikasleok antolatutako Elkartasun Tonbola ospatuko da Gabon Egunean. Duela zenbait urte hasi ginen hau antolatzen, eta jendeak hurrera bikaina egin dio tonbola horri.

Tonbola honetan eskuragarri egoten diren sariak Orion dendaz denda pasa eta bertakoek borondatez emandako opariak bilduta lortzen ditugu. Aurten ere Orioko komertzioei laguntza eskatu beharrean gaude, izan ere, beren eskuzabaltasuna dela eta antolatu dezagun tonbola.

Tonbolaren bidez lortutako iraba-

## Okerrak zuzentzen

KARKARAREN 365 zenbakian, duela bi zenbaki, alegia, jaiotakoan atalean, izen bat oker idatzi genuen.

Nurile Dorronsoro Agirre jaio zela jarri zuen KARKARAK, baina izena ez genuen behar bezala idatzi, Nunile baita. Irailaren 4an jaio zen haurra, Orion.

Hortaz barkamena eskatu nahi dugu egindako hanka sartzeagatik eta, bide batez, ongietorria eman nahi diogu Nunileri. Eta, nola ez, zoriondu gurasoei! Zorionak eta ongi etorri!

ziak, bi zatitan banatzen ditugu: irabazien erdia, martxoan egingo dugun kurtsu amaierako bidaiaria finantzatu ahal izateko, eta beste erdia, berriz, Ruandako eskola batera bidaltzen dugu, bertan ezinbestekoa duten ma-

teriala erosi ahal izateko. Horregatik deitzen zaio Elkartasun Tonbola.

Besterik gabe, gure eskerrik beronenak urtero hau guztia aurrera eramaten laguntzen diguzuen guztiei. ■ **Orioko**

## Zer esan? Eskerrik asko

1964. urtean Lourdes arrandegiak bere ibilbidea hasi zuen. Gurasoak hasi ziren lanean eta seme-alabek jarraitu dugu. Gure helburua urte guzti hauetan bezeroak ahalik eta ondoen zaintzea eta geure bizitza aurrera ateratzea izan da. Urte guzti hauetan iruditzen zaigu familia ederra sortu dela bezero eta langileen artean. Ondo pentsatu ondoren, tamalez, iruditzen zaigu gaur guztiek amaiera duten bezala, Lourdes arrandegiaren amaiera ere iritsi dela. Hau esanda, bezeroei bihotz-bihotzez eskertu nahi diegu urte guzti hauetan guregan konfiantza edukitzeagatik eta, besterik gabe, eskerrak ematea besterik ez zaigu falta. Mila esker guztioi. ■ **Lourdes Arrandegia.**

## ■ ZORIOTXARRAKI

*Kotxeei isunak, bai eta zergatik ez txakurren jabeei?*

**H**erriar batek honela galdetu zigun, herriko berdeguneak eta jolastokiak txakur kakez josita daudela kexatu eta gero: kotxeei isunak, bai; eta zergatik ez txakurren jabeei?

Mendibeltz futbol zelaiaren aldame-neko jolas parkean, esaterako, ez da apenas haurrik ibiltzen, txakur kaka ugari egoten baita. Hori omen da herriko gune aipagarrienetako txakur kakei dagokionez. Josita egoten da. Baina, badira beste hainbat toki ere, Arrantzale kalea esaterako.

Horregatik, arazo hori dagoela ikusita, zoriotxarrak emango dizkiegu txakurren kakak jasotzen ez dituzten jabeei.

Eta arrerantzean txakurren kakak jaso eta dagokion zakarrontzian botatzea eskatzen diegu, guztiok goza dezagun Orioko garbi batez.

## ■ JAIOTAKOAK

■ Katixa Igoa Palacios, Orion, azaroaren 8an.

## ■ EZKONDUTAKOAK

■ David Asamoah eta Belgica Altagracia Quezada de Gimenez, Orion, urriaren 29an.

■ Fabiana Aparecida Teles eta Luis Obryan Lopez Sanchez, Orion, urriaren 30ean.

## ■ HILDAKOAK

■ Gregorio Lozano Machon, Orion, azaroaren 19an. 71 urte.

■ Rufino Gonzalez de Txabarri Peña, Orion, azaroaren 8an. 82 urte.

■ Juan Ramon Eizagirre Lamberri, Orion, azaroaren 5ean. 51 urte.

■ M<sup>a</sup> Karmen Manterola Iruretagoiena, Aian, azaroaren 2an. 84 urte.

■ Pako Iribar Azkue, Orion, azaroaren 1ean. 62 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

**943 83 15 27**



Ortzaikan elkarrekin aritu ziren Etxeberria anai-arrebak. KARKARA



Gipuzkoako txapela jantzi zuten bi aiarrek, palan. KARKARA



Iazko Gure Bazterrak Festibalean Grises taldea. I. GURRUTXAGA

# Gure bazter maiteak

“Baina propaganda egiten bakarrak ez dira herri kirolariak eta arraunlariak”

**G**ure bazterrak, Aia eta Orio, ezagutarazteko giltza dira herri kirolak eta arrauna. Bolo-bolo ibili da epaitegietan estropuen afera, baina herrian hautsa gutxi harrotu du, mirotzik ez baitzegoen jomugan.

Jo eta pasa egiten du Aiak herri kirol zaleek jarritako gutxieneko lehiaketen muga. Astebururo bada zerbait: harri jasotzaileak ez badira, idi probak, edo sega. Zaleek Aia dute herri kirolen gotorleku, Aiak hartzen baititu maiztasun handiarekin lehiaketa entzutetsuenak.

Eta, agenda hutsik dagoenean, herri kirolean fin-fin aritzen diren pisu handiko kirolariak, maiztasun handiarekin markak ontzen dituztenak, Euskal Herriko proba batean edo bestean izaten dira. Herri kirolak non, aiarren edo oriotarren presentzia han. Hilabete honetan Albitzuri-andi harria altxatzen izan dira Ostolazko Eskolako harri-jasotzaileak; harria jasotzen eta zaldiari tiraka Etxeberria sendikoak Ortzaikan; Gipuzkoako txapela jantzi dute Eizmendik eta Aldaik palan, aurkariak erraz txokoratu ostean...

Ez dira txokoa, ezkutuan, gelditzen Aia eta Orioko herriak horrelako kirolariekin. Lau haizeetara ematen dute gure herrien berri. Baina propaganda egiten bakarrak ez dira herri kirolariak eta arraunlariak. Podiumez podiumera ibiltzen baitira Gorka Eizmendi, Sara Peña eta Joseba Unanue, besteak beste.

Baina bada, hilabete honetan, kirolaz harago, gure herria Euskal Herriko bazter guztietan entzuna izatera eramane duena eta kanpoko musikazaleak Oriora erakarriko dituen. Gure Bazterrak jaialdiaz ari naiz.

# Zer musika jartzen duzu parrandarako? Zergatik?



“Musikari garrantzia ematen diot, itsutu gabe”

**E**stetan une desberdinak daude eta horren arabera musika bat edo bestea eskatzen dit barruak.

Poteorako txarangen eta trikiti doi-nuak ditut gustuko.

Gauetz, ordea, beste musika mota bat dut maite.


Noski musikari garrantzia ematen diodala, baina ez naiz itsutzen.

Askotan, batera eta bestera ibiltzen naiz belarrietan sartzen denarekin ez aspertzeko, gehitxo errepikatzen baitira abestiak.

Musika euskaraz ala ez... Ni saiatzen naiz euskaraz egiten den musika tartekatzen, baina hori saio bakoitzaren arabera da.

**Iker Gurrutxaga**

Kazetaria, entrenatzailea eta DJa



“Batxata, merenge eta denetik jartzen dugu parrandan”

**E**gunean zehar musika lasaiagoa jartzen dugu, jende helduagoa egoten baita, parrandan ibiltzen ez dena.

Parrandan batxata, merenge eta denetik jartzen dugu. Eta jendeari asko gustatzen zaio, animatuagoa baita. Dantza egitera bultzatzen du-eta.

Baina, bestalde, tabernara joaten direnek eskatutakoa ere jartzen dugu. Finean, garrantzitsuena, jendea gustura sentitzea eta animatuta egotea baita.

Egia esan, beti ahalegintzen naiz jendea nik egiten dudana musika aukeraketarekin harritzen, girotzen. Beti saiatzen zara egokitzen bezeroen arabera, beretzat berezia izan dadin.

**Leslly Espinosa**

Koastako tabernaria



“Patxanga, gazte gehienei gustatzen zaiena hori delako”

**G**uk, egia esan, *patxangeoa* jartzen duzu. Parranda garaia denean beti jartzen dugu *patxanga*, musika alai eta erraza.

Eta zergatik jartzen dugun *patxangeo* musika? Bada, gauar egun, parrandan ibiltzen diren gazte gehienei gustatzen zaiena hori delako. Eta... noski, niri ere gustatzen zaidalako!

Egia da, dena den, astebururo bateren bat jartzen dugun musikarengatik kezaka aritzen zaiguna. Baina tira, ezin dira guztiak gustura eduki. Hori ezinezkoa da.

Eta gainontzean, astean zehar-eta, denetarik jartzen dugu.

**Ander Beldarrain**

Tabernaria

**EKILORE GARBIKETAK**

626417841  
ekilore@outlook.es

**ARISTERRAZU jatetxea**

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

Kinkladenda - Ume arropa

**argine**

www.lasonet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARIEN TXARTELAREKIN

**Gabon** TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogifartekoak

943 83 06 09

Ez gelditu.  
Jari arreta zure helburuan.  
**LORTUKO DUZU.**  
**INDARTSUA ZARA.**  
**BPXport**  
www.bpxtecnificacion.es

**AZKARRA  
IZATEAGATIK...  
PRESTAKUNTZA  
preziorik onenean.  
OPARITU EZAZU!!**

6 hilabeteko prestakuntza fisikoa zerbitzua erabiltzen baduzu, beste zerbitzuak prezio berezietan jasoko dituzu:

- Prestakuntza: 49,00 € / hilabetea
- Esfortzu probak: Oinamizkoa: 61 €  
Aurreratua: 95 €
- Nutrizioa: 31€ / hilabetea
- Biomekanika: 124 € - errebisioa: 80 €
- Hipoxia: 10 saio - 120 €  
20 saio - 200 €  
saio 1 - 25 €

**KARELA** Erreberak 1, 20810 Orio - 943 894 428 - orio@bpxport.es

*Garbine Arregi*  
*Moda eta osagarriak*  
*Herrita plaza, 5*  
*635 706 265*  
*jasoan goizez zabalik!*

**GARMENDIA**  
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK  
Ibai Ondo, 1  
Tel.: 943 834 486 - Fax: 943 132 941

**2GURPIL**  
Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)  
Tf 943 835 980 W www.2gurpil.com E bigurpil@hotmail.com

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidaiak S.L.  
Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.  
Tel. 943 13 28 93/83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

*edunitegia*  
**ANTILLA**  
*juleta*  
Aleslari Kalea, 2 - Tel. 913 83 23 00

**azkue**  
**karrozeria**

Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com



# “Errusiera jakiteak jende asko ezagutzen lagundu dit”

**Andoni Larrarte**

Ingeniari komertziala

Aiako paraje naturaletatik Moskuko asfalto eta eraikinez jositako metropoli erraldoira joan zen Larrarte -Aia, 1981-. Ukrainako gorabeherak eta erregaien prezioaren jaitsierak Errusiako ekonomia zigortu dute, eta krisiak etxera bueltatzea behartu du aiarra.

## O. ARTOLA

Aiatik Errusiara, Moskura, hainbat arrazoiengatik joan zen. Lan arloko anbizio handiko aukera bati, Errusia bertatik bertara ezagutzeko gogo batu zitzaion. Ikaratuta baino ilusioarekin egin zuen maleta 2014an, erronka berriari ekiteko prest. Urte betera maleta berriz egin du, etxera itzultzeko.

### Lan baldintzak oso ezberdinak al dira Errusian?

Atzerritarrek nahiko lan baldintza onak dituzte han, baina bertako langileen baldintzak oso bestelakoak dira. Moskun, soldata altuenak dauden hirian, batz-beste soldata 1000 eurotik beherakoa da. Etxebizitzaren prezioak, aldiz, altuak dira. Hori bai, horrelako hiri erraldoi batean merkatua izugarria da eta aukera asko daude.

### Errusiera ikasita joan al zinen?

Donostian bizi den lagun batek errusiera eskolak eman zizkidan, baina, bi astetan, ez nuen askorik ikasi. Hara iristean ez nuen ezer ulertzen; hortaz, eskola batean eman nuen ize-na. Astean bitan joaten nintzen eta, gainontzeko egunetan, nire kabuz ikasten nuen. Ez nuen aukerarik galtzen belarriak adi-adi jarri eta ahal nuen heinean errusieraz hitz egiteko. Makina bat barre egin dituzte lankide eta lagunek nire hanka sartzeak direla-eta.

### Behartuta sentitu zinen errusiera ikasteko?

Mosku eta San Petersburgo bezalako hiri handietan gero eta jende gehiagok hitz egiten du ingelesez, baina oraindik



jende asko dago ez dakiena, bereziki herri txikiagoetan. Bestalde, bereziki enpresa multinazionalak goi karguek eta atzerritarrek, ez dakite errusiera. Niri errusiera jakiteak jende asko ezagutzen eta beren izaera eta pentsaera ulertzen lagundu dit. Nik izugarri gozatzen dut hizkuntza berriak ikasten, beraz, plazera izan da niretzat. Orain errusieraz hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gai naiz.

### Eta orain, zer egingo duzu ikasitakoa ez galtzeko?

Aian bizi den Tatiana eta bere senarra Joxerekin gelditzen naiz kafea hartu eta errusieraz hitz egiteko.

### Mosku utzi eta Aiara etorri zara berriz. Aldaketa handia...

Aiako lasaitasunak, paisaiak eta aire osasungarriak ez du zerikusirik Moskuko aglomerazio, pilaketa eta kutsadurarekin. Kontraste izugarri jositako dago. Aberastasun ekonomiko oso gaizki banatua dago: gehiegikeriatan bizi diren aberatsak eta pobrezian bizi direnak. Historia eta kultura askoko herrialdea da, aniztasun askokoa, oso gomendagarria oporraldi baterako.

### Eta bizitzeko?

Aldi baterako, bai. Etxetik urrun bizitzeak beti ematen du herrimina, baina niri Errusiako egoera ekonomiko txarrak bultzatu nau etxera itzultzera: erregaien prezioen erorketa, erribloaren balio galtzea... Buelta oso goxoa izan da, orain artekoetan bezala. Bizi-kalitate hobea daukagu hemen.



Ekain Zubizarreta

## Gogoetak Paristik

**N**enek izan duzue Parisen jazotakoaren berri, alferrik litzateke horren gainean idaztea. Horren orde egokia iruditu zait gertatutakoaren ondorioetako batzuk azaltzea, nire ikuspegi propioetik.

Nire ustez bi ondorio nagusi izan zituen ostiralekoak: mina eta beldurra. Mina batez ere gertuko jendea galdu zuenak sentitu zuen eta sentitzen du, beste gehienok beldurra.

Parisen bertan beldur honek eragin handia izan du. Edozein soinuk edo jende mugimenduk paniko krisi erraldoiak sortu ditu –atzo gutxienez hiru izan ziren Parisen, bat bi petardoren leherketek sortu zuten, baina beste bi huskeriengatik hasi ziren–. Jendea martxa arrunta hartu nahian dabil, baina kale asko hutsak daude eta tentsioa nabaria da jendartean.

Frantzia mailan, berriz, beldur honek izugarrizko kontrola ekarri du, bai mugetan eta baita hirietan ere. Gainera, abenduko COP21a eta hurrengo urteko Eurokopa tarteko, larri samar dabilta nola jokatu pentsatzen.

Mundu mailan babesia izan da erantzun nagusia, baina ez da bakarria izan zoritxarrez. Batetik, garbi geratu da gizaki

denak ez daudela maila berean eta berdina zaigula Libanon, Iraken edo Sirian gertatzen dena –hildako asko izan ziren hiruetan ostiralean, babes erantzunik ez zen egon ordea– eta, bestetik, musul-

***Gizaki denak ez daudela maila berean eta berdina zaigula Libanon, Iraken edo Sirian gertatzen dena; eta, bestetik, musulmanenganako gorrotoa ere azalera atera da, musulman guztien errua balitz bezala.***

manenganako gorrotoa ere azalera atera da, musulman guztien errua balitz bezala gertaturikoa.

Beldurra erreakzio normal bat da, bai, baina zaindu ditzagun ekar ditzakeen beste erreakzioak eta holako egoerek gure jokabideen inguruan hausnartzeko balio dezatela.

**Zaragueta**  
Herri Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkontza.net

**Galerna**  
JATETXEA

Antillako Hondartza 5  
20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

**Karkara.eus**

**Eskaintza berria**  
**Eskaria**

# Aiar ospetsua



M. Uria

**Gure artean oso ezezaguna da Joseph Joachin. Beharbada Espainiako erregetzaren lan egiten zuelako-edo.**

Aiar ez dugu pertsonaia ezaguna edo sonatua izandako askorik. Beharrik ere ez, esango du norbaitek. Baina egia da, pertsonaia hauek herrimina edo sortzeko baliagarriak izaten direla, ez bada behintzat gauza txarreatatik ezagun egin. Hala ere, nire iritziz, ditugun gutxi horiei askotan ez diegu behar edo merezi luketen adinako osperik ematen. Pertsonaia horietako bat, XVIII. mendean –1750. urtean– jaio zen Joseph Joachin Arrillaga Enbil dugu. Manterolan jaioa, Ameriketako Goi eta Behe Kaliforniako gobernadorea izan omen zen 1.800 urtetik 1.814ra bitartean. Garai hartan Goi Kalifornia, gaur egun Estatu Batuetako Kalifornia zen gutxi gorabehera, eta Behe Kalifornia, gaur egungo Mexikoren zati bat. Beraz, ez zen nolana hiko lurraldea; Espainia osoa bezain handia. Hala ere, gure artean oso ezezaguna dela esango nuke Joseph Joachin. Beharbada Espainiako erregetzaren alde lan egiten zuelako-edo. Gogoan izan behar dugu Kalifornia eta beste lurralde batzuk Espainiaren menpe zeudela garai haietan, Espainia Berria –Nueva España– deitzen zitzaizolarik.

Dena den, garai haietako beste pertsonaia asko ere horrela ibili ziren, eta hala ere izen onekoak eta sonatuak dira gaur egun ere.

Arrillaga jaunak, izatez bertakoak ziren indiarren aurkako gerra edo borrokan irabazi omen zituen merituak, gobernadore izatera iristeko. Jesuitekin batera, lurralde haiek *kolonizatzen* aritu zen dirudienez. Hau ere betiko kontua; zertara joan ote ziren Ameriketako lur haietara, atzeratuta bizi ziren indiarrei laguntzera edo bere buruaren eta Espainiaren mesedetarako? Gizakia pixka bat ezagututa, ez dut zalantzarik bigarren arrazoia izango zela helburu nagusia.

Beharbada, Jesusen Lagundikoak benetan laguntzeko helburuarekin joango ziren, baina hauek ere erlijio katolikoa zabaltzea –edo inposatzea– izango zuten helburu, bertan zeuzkaten Jainkoak eta sineskeriak balio ez balukete bezala. Baina beno, hau beste kontu bat da. Azken finean, aipatutako guztiak gorai patzea merezi duen edo ez, norberak erabaki beharko du; baina modu batean edo bestean, Arrillaga Enbil jaunak aiar gizon berezi baten gisan ezagutzea merezi duela iruditzen zait niri. Finean, gure historia da.



Onintza Aiestaran

## Garaian garaikoa

Aiar at-batean heldu da negua, udazkenik gabe, eta biluzik harrapatu nau. Badakit azaroa amaieran gaudela eta abendura ate joka daukagula, baina kosta egin zait errealitatea onartu eta neguko arropa ateratzea. Zeinen ederki nengoen azaroko eguzki goxotan!

Eguzkia eta hego haizea ez dira, ordea, denen gozagarri izaten. Gure etxetik bertatik hasita, bada Jainkoari euria egin dezala erregutzen dion angulazale bat; hain zuzen ere, erregu bera egin zuten Igor Manterola eta Divina Lanberri oriotarrek hil honetan irratan angulez hizketan aritu zirenean ere. Azken egunotako euria nahikoa izango al zen angulak Oriá ibaian gora sartzeko?

Ez naiz ni angula kontuetan oso jantzia, baina etxean aginagar bat izanda, halabeharrez zerbait ikastea suertatu zait. Aitortu behar dizuet ez naizela inoiz angulak harrapatzen izan –errio bazterreko hotzak eta euriak ez naute erakartzen–, baina angularen arrantzak badu magia berezi bat. Etxeko adituaren esanetan, hainbat faktore hartu behar dira kontuan: ilargia, marea, ur-karga, zerua garbi edo lainotuta dagoen, iluntasuna, ... Dena den, arrantza ez da matematika eta esperientziak eta norberaren abileziak ere badute zeresana.

Kontuak kontu, bakoitzak bere *armak* erabili beharko ditu ahalik eta angula gehien harrapatzeko. Gezur gutxi esan eta zorte on!

# Duzun balioa sinestarazteko gakoak



## Erak

Ibaiondo plaza, 9 behe

Norbanakoan zentratu eta bakoitzari duen balio ematea du helburu Erak enpresak. Pertsona indibiduo integrala den heinean, lan metodologiak ere hori izango du oinarrian, pertsona ardatz hartuta ertz guztietatik landuko baitira bakoitzaren beharrak.

Erak helduleku bat izango da, aske sentituko zaren espazioa, zure galderen erantzulea Erak Ines Asenjo-ren egi bihurtutako ametsa da, orientazio eta aholkularitza zentroa, sostengua emango dizuna, zure beharretara egokituko dena.

### Eskariari erantzungo dion proiektua

Behar pertsonaletatik abiatuta, baina premia orokorra dela ikusita, herrian zegoen hutsunea betetzeko asmotan ekin zioten Erak sortzeari.

Pertsonen autonomia bermatu nahi du Erak enpresarekin, bizi kalitatea erraztu. Horretarako aholkularitza eta orientazio zerbitzu integrala eskainiko dute, hau da, pertsonaren esparru sozialari, emozionalari, hezkuntzari eta komunitateari ere erreparatuko diote. Izan ere, pertsona bat aldatzeko bi fokotan egin behar da indarra: indibiduoan eta bere inguruan.

### Aholkularitza eta orientazio integrala

Eskaintza integrala eta pertsonalizatua izan dadin, martxan jarriko dituzten proiektuak bakoitzaren nahi eta beharretara egokituko dira; hortaz, eskaintza indibiduala edo kolektiboa izango da.

Klase partikularrak, non haurra bere ikasketa prozesuko partaide izango den; parte-hartze komunitarioa sustatzen duten ekintzak; bideo forumak; kirola eta osasuna landuko diren tailerak, menpekotasuna lantzeko terapiak, musikoterapiak...

“Zure galderen erantzulea izango da Erak”

Gazte eta helduekin egingo dute lan, era paraleloan, lan metodologia berbera oinarri dutela. Eta, aldi behin, ekimen intergenerazionalak egingo dituzte, batak bestearengandik ikasteko.

### Lan talde espezializatua

Asenjo izango da proiektuaren gidaria, baina eskutik emanda izango ditu Aitziber Indart eta Hossain Kaanache, helduekin eta hurrekin egingo dute lan, hurrenez hurren; baita Carmen Villar psikologoa ere. Hiru profesional hauek izango dira Eraken hiru hanka printzipalak. Baina beste hainbat aditu ere izango dira –psikologoak, logopedak...–, nola zentroan, hala zentrotik kanpo, Oriotik atera nahi duenak horretarako aukera izan dezan.

Beldurrik gabe atea jo eta barrura sartzera gonbidatzen zaituztete, bertan askatutakoak han geldituko baitira. Beso zabalik hartuko zaituztete!

**Erak**

Ibaiondo 9, behea

688870435

erak.orio@gmail.com



AURKEZPENA

Abenduaren 3an, 18:00etan, kultur etxean

Animatu eta azaldu!



## Elkartasun keinua Oriotik Senegalera

**H**oriz jantzita ikusi ditzakezue argazkiko senegaldarrak. Orioko Futbol Taldeko jantziak dituzte soinean, izan ere, aspalditik bidaltzen dute elkarteko materiala Senegalera. Horretarako elkarlanean aritzen dira Gipuzkoako Futbol Federazioarekin.

Elkartasun keinu honekin, txikitik bada ere, senegaldarrei laguntza ematea da helburua; eta, besteak beste, kirola egiteko bitartekoak izatea. Hortaz, elastikoez gain, galtzak eta baloiak ere bidaltzen dituzte, besteak beste.

Urte mordoan daramatza Orioko Futbol Taldeko elkartasun keinu hau egiten, eta, pozgarriena, jasotzen duten esker ona. Aurten, adibidez, argazki hau bidali diete Afrikatik, eskerrak emanez.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-ritakoa dela jarrita.

### ORIOKO FUTBOL TALDEA

  
**Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra

  
**Harrespil**  
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



# Euskararen erradiografia Orion

Orio esukararen arnasmune dela jakina da, baina, nolako osasuna du? Abenduaren hirua gertu dela eta, **euskararen erradiografia egin du KARKARAK**, gure hizkuntzak herrian zer nolako osasuna duen ikusteko.



**TESTUA: M. GARCIA ETA O. ARTOLA**  
**ARGAZKIAK: KARKARA**

**O**rio euskararen arnagunea dela gauza jakina da, herrian hizkuntza gutxituak arnas lasai hartzen duela, bere erabilera arrunta dela kalean, etxean, lagunartean eta beste esparruetan.

Kalera irten eta haurrak parkean euskaraz jostatzen entzutea da ohikoena, baita erosketak egiterakoan euskaraz ordaintzea ere. Baina, ba ote dakigu zein den birika horien benetako osasuna? Ezagutzen al dugu euskararen sakoneko egoera?

Euskararen eguna gertu dela eta, Orion euskara nola dagoen ulertzeko erradiografia egin du KARKARAK. Euskarak esparru desberdinetan duen presentzia ezagutzeaz gain, gure hizkuntzarekin harreman berezia dituzten hainbat pertsonen historiak ezagutzeko aukera izango du irakurleak.

### **Hizkuntza gaitasuna eta kale erabilera**

2011n eginiko estatistiken arabera, Orioko biztanle gehienak euskaldunak dira: %76, hamar lagunetik ia zortzi. Beste alde-

an, ia euskaldunak %13 dira, eta erdaldunak %10.

Aurreko urteetako datuei begiratuz gero, azken urteotan euskaldunen portzentajeak behera egin duela ikus daiteke: 1996an oriotarren %83 ziren euskaldunak, 2001ean %80 eta 2006an %77.

Euskaldun proportzio handiena gazteen artean dagoela diote datuek. 1999an Siadecok egindako azterketaren arabera, hogeitaz beherakoen artean %99 ziren euskaldunak eta, gehienak euskaraz hobeto moldatzen ziren gaztelaniaz baino. 2011n, berriz, bi urtetik hamalaura bitarteko haurren %90 inguru eta hamabost eta hogeita hamalau bitarteko gazteen %80 inguru ziren euskaldunak. Gainera, euskaraz ez dakiten haur eta gazte batzuk badirela erakusten dute datuek, batez ere etorri berriak.

Baina hizkuntza gaitasunetik harago erabilera dago. Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuak bi urtetik behin euskararen erabileraren kale neurketak egiten ditu. Neurketa horiek diotenez, euskararen kale-erabilera ez handitzeaz gain, jaitsi egin da adin-tarte batzuetan.



Helduen erabilera-maila nabarmen jaitsi da: 2011n helduen %61,19ak egiten zuen euskaraz eta 2013an %55,87ak. Gazte eta haurrena, berriz, oso altua da eta urtez urte eusten diote. 2013an %88,5ek hitz egiten zuen euskaraz..

### Hezkuntza

Herriko bi eskoletan Deredua dago, beraz, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza euskaraz egiten dituzte herriko umeek.

Horrez gain, bai Zaragueta Herri Eskolak eta bai Orioko Herri Ikastolak martxan dituzte Hizkuntza Normalkuntzarako programak. Programa horien baitan euskararen sustapenerako eta motibaziorako hainbat jarduerak egiten dituzte.

Erabileraren alorrean ikerketak egin dituzte bi ikastetxeek. Ikerketa horren arabera, Ikastolako ikasleen %95,2k euskaraz egiten du gela barruan eta %93,4k gelaz kanpo. Zaraguetan ikasleek bi hizkuntzatan hitz egiten dute. Juan Jose Zubizarretaren, eskolako zuzendariren arabera, *ohiturak dituzte; garbi bereizten dute irakasleekin ari diren, beren artean ari diren edo eskola jardueretan ari diren.*

Euskaraz ez dakiten atzerritar gero eta gehiago matrikulatzen dira ikastetxeetan, eta horiek euskalduntzeko lan-ildo-

aketa prozedurak zehaztuta dituzte. *Ikasle berrien jatorrizko hizkuntza kontuan izaten dugu beti –dio Saizarrek– ezin baitzaio trataera bera eman gaztelania dakien ikasle bati edota beste hizkuntza baten jabe denari.* Ikastolak hizkuntza erabileren behaketa prozesuak ditu, eta horien emaitzaren arabera esku-hartze planak lantzen dituzte. Zaraguetan ere badute Harrera Plana. *Gaztelera ezagutzen ez duten herrialdeetatik datozen ikasleak erabat murgiltzen dira euskararekin eta azkarrago ikasten dute –dio Zubizarretak–; gaztelera ezagutzen duten ikasleek, ordea, komunikatzeko euskararen beharrik ikusten ez dutenez, ikasketa prozesua luzatu egiten da.*

### Euskalduntze-alfabetatzean pauso bat: Euskaltegia

Euskara irakasteko zerbitzuen alorrean aurrerapauso handia eman du Udalak ikasturte berriarekin: Euskaltegi berria ireki du. Orain arte urtero egiten zen euskara ikastaro eskaintza irailean; Zarauzko AEK-k kudeatzen zuen eta Kultur Etxeko gelatan ematen ziren. Taldeak osatzeko, ordea, zailtasunak izaten ziren.

2015-2016 ikasturtearekin batera euskaltegi zerbitzu berria dute oriotarrek, doakoa eta aurrekoa baino zabalagoa. Hasteko, toki fisikoa du orain, Kosta Tailerlean.





“Euskalduntze-alfabetatzean aurrerapauso handia eman da ikasturte berriarekin: Euskaltegi berria.”

“Eskolatik kanpo antolatzen diren ekintzen %92 euskaraz egiten da Orion.”

*AEKtik ikusten genuen euskaltegi fisiko baten beharra herrian –dio Eukene Caballerok, euskaltegiko irakasleak–, matrikulazio kanpaina askoz errazagoa izan da aurten. Ikasle kopurua ikusi besterik ez dago: 30 lagunentzat planteatu zuten hasiera batean eta 65 ikasle daude matrikulatuta guztira. Hiru talde daude aurrez-aurreko klaseetan: bi talde hasiera mailan eta bat alfabetatze mailan.*

*Eukene Etxeberria irakaslea da euskaltegi berrian: talde oso desberdinak ditut nik; goizekoak euskaraz ezer ez dakiten kanpotarrak dira –Estatu Batuetatik, Argentinatik, Kataluniatik eta abarretik etorritakoak–, arratsaldekoak, berriz, berriz eginda dute eta euskara gaintitu gabeko irakasgaia zen berentzat. Caballeroren taldean, berriz, alfabetatze mailakoak daude: askori galdetu genien zein zen beren helburua euskaltegian hastean, eta hitz-egitea izan zen erantzuna, baina batzuk tituluren bat lortzen saiatzera animatu dira.*

*Horrez gain, lehen aldiz autoikaskuntza zerbitzua jarri da martxan. Norbere kabuz euskara ikasteko aukera dute euskaltegiko ordutegietara moldatu ezin dutenek edo taldea osatzealortu ez dutenek. Euskaltegian bertan edo etxean egitan dute lana, tutore baten gidaritzapean. 32 pertsona ari dira modu horretan euskara ikasten.*

*Euskaltegiak izan duen harrera ikusita, mintzalagun taldeek ere marxa hartu dute. Hiru talde sortu dira aurten, 11 lagunek eman dute izena, guztira. Besteetan euskaldun zahar bila aritzen gara, baina euskaldun berri gehiago animatzea nahi dugu aurten–dio Caballerok. Rosi Lazkanok bigarren urtea du Mintzalagun programan, euskaldun zahar gisa eman zuen izena. Oso gustura nago erabakiarekin, ez da ezer kostatzen eta laguntza handia da euskaldun berriarentzat. Astean behin elkartzen dira, ordubetez. Alde onak besterik ez ditu –dio Lazkanok–, zailtasunak dituen jendeari ohitura hartzen eta euskaraz hitz egiten laguntzen diozu.*

### **Kirola eta aisia ere euskaraz**

*Planiker enpresak Urola Kostako eskolaz kanpoko ekintzen inguruan egindako azterketaren arabera eskolatik aparte antolatzen diren ekintzen –kirola, musika, katekesia...– %92 euskaraz egiten dira Orion.*

*Horren zati bat Txurrunuski aisialdi elkarteak du; Udako udaleku irekiak, Gaztelekua eta Ludoteka ditu bere ardura-pean, besteak beste. Ekintza guztiak euskara hutsean egiten ditugu –diote arduradunek–, baita bilera informatiboak eta idatzizko dokumentuak ere. Gaztelekuan badago eszepzioren bat edo beste, baina haurrek ere beren artean euskaraz egiten dute ia dena.*

*Kirolari dagokionez, elkarte ugari dago Orion, antolaketa eta tamaina oso desberdinetakoak denak. Kirol elkarte bakoitzak bere errealitatea du euskararekiko eta, normalean, egoera aldakorra izaten da.*

*Kirol elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko, Urola Kostako Udal Elkarteak Euskara Sasoian izeneko programa bat jarri zuen martxan. Kirol elkarteetan euskararen presentzia bermatuta zegoela ikusi zutenean amaitu zen programa, baina jarraipen bisitak egiten dituzte euskara elkarteetan kirolariak bezain osasuntsu dauden ikusteko.*



“Mintzapraktika egiteak lagundu gaitu”

## Awais Hussain

Paskintandarra

### Noiz etorri zineten hona?

2008an etorri ginen. Paperekin zortzi urte daramatzagu, baina zortzi horietatik hiru pasa ditugu Orion, beste bostak Pakistanen. Ikastolan duela hiru urte hasi nintzen.

### Euskara ikastolan ikasi duzu?

Euskara ez da horren zaila, baina hasieran pittin bat kostatzen zitzaidan. Dena den, sei- zazpi hilabetetan komunikatzeko gai nintzen. Erraz ikasi nuen. Lagunekin-eta euskaraz hitz egiten dut.

### Euskara jakiteak lagunak egiten lagundu al dizu?

Orio ia erdia ezagutzen dut, dagoeneko. Ikastolako lehen egunean, euskara ez nekienez, ixil-ixilik egon nintzen. Baina lagunak euskara erakutsi zidaten eta horrek asko lagundu dit lagunak egiterako garaian.

### Orain gutxi, familiariko negozioa ireki duzue herrian. Harrera eta eskaintza euskaraz egitea beharrezkoa ikusten duzu?

Garrantzitsua da oso. Erostera etortzen diren askok lehen hitza gaztelaniaz egiten dute. Bat-batean, guk euskaraz erantzutean, harrituta geldituzten dira. Oso ondo hitz egiten dudala diote...

### Eta horrela da, bai.

Oraindik gutxi dakit, baina joango naiz gehiago ikasten.

## Marta Camps

Katalana

### Nolatan etorri zinen Kataluniatik Oriora?

Seneka programaren bitartez gradua amaitzera etorri nintzen, bikotekidearekin. Hasieran Zumaiara joan ginen eta han bizi ginen bi urtez. Pisuz aldatzea erabaki genuenean Oriora etorri ginen.

### Eta zer moduz moldatzen zarete Orion?

Ondo. Akaso migrazio gehiago dagoelako eta ohituta zaudetelako atzerriarekin harremana izaten, baina Zumaiarian baino lotura gehiago egin ditugu Orion. Mintzalagun taldea batean hasi ginen eta horrek ere lagundu egin gaitu.

### Euskara jakitea lagungarria da harremanak egiteko?

Bai, errazten du.

### Mintzapraktikak baino lehen euskaltegira joan zinen?

Bai. Bi urte Zumaiako AEKn ibili nintzen. Gero Donostiarra joan nintzen; eta, azken txanpa egiteko, Maizpideko barne-tegira joan nintzen. Bi hilabete egin nituen han.

### Denbora tarte txikian ikasi duzu. Erraza egin zaizu?

Zaila da, baina ahaleginduz gero guztia lortzen da.

### Euskal Herrira etorrita euskara ikastea ezinbestekoa al da?

Katalana naizenez, akaso, kontzientzia hori badut. Baina, erritmo honekin ikastearen arrazoa irakaslea izateko euskara derrigorrezkoa dela da.



“Gaztelaniaz egiten dute lehen hitza”



## “Gure seme-alabek beste hizkuntzak ezagutzea nahi genuen”

### Jason Coon

Estatu Batuarra, Orion bizi da

#### M. GARCIA

#### **Nola hartu zenuten Euskal Herrira etortzeko eta euskara ikasteko erabakia?**

Estatu Batuetan haur eta gaztetxoentzako udalekuetan egiten genuen lan. Kanpamenduak Donostiako elkarte batekin harremana du, eta euskal ikasleak joaten ziren ingelesa ikastera. Horrela ezagutu genuen Euskal Herria, hango jendea eta hango hizkuntza.

Guk ez dugu amerikar tipikoak izan nahi, Estatu Batuak herrialde handiena eta ingelesa hizkuntza bakarra dela pentsatzen dutenak bezalakoak. Gure seme-alabak mundua maitatuz heztea nahi dugu, eta beste kulturak eta herrialdeak ezagutzea, beste hizkuntzak hitz egiteko gai izatea.

Euskal Herriko jendearekin harremana egin genuen; Orioko, Lazkaoko, Oñatiko, Lezoko eta hainbat lekutako jendea ezagutu genuen. Horrela, hona etortzea erabaki genuen. Urtetik urtera joatea pentsatu dugu, gure seme-alabek euskara ikas dezaten, hemen oso garrantzitsua delako.

#### **Ba al zenekiten euskararik hona etorri aurretik?**

Bai, zerbait ikasi genuen, internetez. Gainera, han lagun euskaldunak genituen eta berekin zerbait praktikatu nezakeen. Zenbakiak, abestiak... ikasi nituen.

#### **Zer moduz doa ikasketa prozesua hemen?**

Txikia eta familiarentzako bizitoki ederra izateaz gain, hemen dena euskaraz egiten delako aukeratu genuen Orio. Guk euskaraz ikasi nahi genuen gazteleraz baino lehenago,

Euskal Herrian bizita bertako hizkuntza hitz egin nahi genuelako. Gainera, lehenago gazteleraz ikasiz gero euskara ez genukeela ikasiko bagenekien.

Horregatik, umeek bezala ikasi nahi genuen, euskaraz lehenengo eta gazteleraz gero, entzuten eta hitz egiten. Gure ikasketa nagusia kalean gertatzen da, lagunekin. Horrez gain, nire emaztea euskaltegian dago. Eukenerekin, euskaltegiko irakaslearekin, biltzen gara ahozkotasuna lantzeko.

#### **Zaila egiten al zaizu euskara?**

Hitzak ez dira zailak, pentsatzeko modua egiten zait zailena. Esaldien ordena desberdina da ingelesez edo euskaraz, eta desberdin pentsatzen ikasi behar dut. Baina hori ona da, beste modu batera pentsatzen ikastea positiboa da guztiontzat.

#### **Nolakoa da oriotarrekin harremana?**

Hasieran urduri ginen, bertako jendea itxia zela entzun genuen. Baina, guretzat behintzat, kontrakoa da. Euskaraz ikasten ari garela jakiten dutenean erantzuna oso ona da. Jendea oso irekia da gurekin.

#### **Umeak ikastolan daude**

Bai, oso gustura daude. Bi gazteenek euskaraz ongi ulertzen dute dagoeneko, baina oraindik ez dute hitz egiten. Zaharren prozesua mantsoago doa, izan ere, adin horietan, beste umeek badakite ingelesez eta horrela hitz egiten hasi dira lagunartean. Baina hori ere oso ona da gainontzeko haurrentzat, ingelesez hitz egin dezaten.



Azaroaren 11tik 15era ospatu zituzten San Martin jaiak Ortzaiakan. Bertsoak, afariak, erromeriak eta herri kirolak nagusi izan ziren, urtero bezala, egu-notan auzoan. KARKARA



Urriaren 23an ireki zituen ateak lehen aldiz ludotekak; martxa hartzeko lehen bi asteren ondoren, inaugurazio festa egin zuten pasa den, azaroaren 6an. Herritar ugari joan zen. KARKARA



Itsas-hiribildu baten ezaugarriak ezagutzeko hitzaldi ibiltaria egin zen Orion azaroaren 1ean. Orioko kaleetan barrena ibili ziren Xabier Alberdi itsas historialariaren hitzak entzuten. JOXEMARI OLASAGASTI



Santa Zezilia eguna ospatzeko, Danbolin Musika Eskolako ikasleak kalera irten ziren kalejiran. Herriko hainbat txokotara gidatu zituzten entzuleak, beste ikasleen abestiak entzutera. **KARKARA**



Urteroko ohitura bilakatzen ari da hazien banaketa. Herriko Natur Taldeko kideek postua jarri zuten azaroaren 8an, herriko plazan, eta jende ugari gerturatu zen haziak hartzera. **UROLA KOSTAKO HITZA**



Udalak deituta, Parisko atentatuak gaitzesteko elkarretaratze isila egin zen azaroaren 16an herriko plazan. **KARKARA**

# “Lehen, dena bekatua zen. Musua ematea ere bekatua zen”

## Karmentxu Aldaz eta Joxe Garate

Garai bateko eta gaur egungo Orio. Biak ezagutu dituzte Karmentxu Aldazek eta Joxe Garatek; elkarrekin, gainera. Berak ikusi duten aldaketa beste inork ikusiko ez dutela aitortu dute.

### O. ARTOLA ETAM. GARCIA

Josi eta josi aritzen zen andrea, gizona arrainak jaso eta jaso aritzeko. 15 urterekin hasi zen arrantzan, herriko ohiturak ez ezik aitaren anaiak ere lotzen baitzion itsasora. Ur handitan sartu gabe, ura bezain gardenak izan dira eman dituzten erantzunak, ardo goxoa eta pastak jaten genituen bitartean.

#### **Arrantzaren egoera guztiz aldatu da Orion.**

**Joxe Garate:** 1967 urtean 28 arrantza-ontzi izatera iritsi ginen. Baina beheraka joan da, etenik gabe...

**Karmentxu Aldaz:** Guk garai onak bizi izan genituen, baina 70etik aurrera beheraka joan da. Eta orain, gazteek ez dute itsasoan hasi nahi.

**Garate:** Arraia prezio berean saldu baina kostua handitu da. Normala, hortaz, geroz eta gutxiago egotea, 28 ontzitik 8ra pasatzea. Pena ematen dit egun egoera horretan egotea.

#### **Eta itsasoari lotutako baldintza eta eskubideak aldatu al dira?**

**Aldaz:** Ni sare josten ibiltzen nintzen garaian saregile asko geunden. Bapore gehiago zegoen, bai; baina sareak ere beste

era batekoak ziren, txikiagoak. Sare asko behar izaten zen eta lan ordu asko egin behar izaten ziren. Sotoan elkartzen ginen. Ordutik egoera aldatu da, baita baldintzak ere.

#### **Ez da arrantza izango Orion aldatu den gauza bakarra...**

**Garate:** Gure garaian fabrika gehiago zegoen: Arocena, Frantzes fabrika... horiek ere itxi egin dira.

**Aldaz:** Orio guk enpresa askorekin ezagutu genuen. Orain hutsa dago zentzu horretan, asko aldatu da. Lehen langileak lanetik atera eta mugimendua egoten zen herrian. Orain ez dago horrelakorik. Herbestera joaten dira lan bila, eta han aurkitzen badute, kontentu.

#### **Krisia dago egun-eta. Baina, hala ere, kontsumitzeko era aldatuko zen...**

**Aldaz:** Guk honela egiten genuen: Aste Santuetan traje berria, sanpedroetan soinekoa eta Santu Guztien egunean abrigoa. Hori estrenatzen zen. Lehen Zarautzen janzten zen kapitalean bezala, hau herri txikia zen-eta. Baina orain...

#### **Zarautzekin desberdintasun handiagoa zuen lehen Oriok?**

**Aldaz:** Lehen udatir asko joaten zen Zarautzera eta estilo hori eransten zitzaien. Hemen ez.



**Horrenbeste aldatu al da, bada?**

**Aldaz:** Lehen ezin zen ligatu ere egin. Dena bekatua zen. Muzua ematea ere bekatua zen.

**Eta orduan, nola ligatzen zenuten?**

**Aldaz:** Guke ez genuen ligatzen! Ez dakit zer den zuentzat ligatzea, baina guk dantza ere neskekin egiten genuen. Ezin genuen mutilekin egin. Niri etxean ez zidaten uzten, eta beti kasu egiten nien etxekoei. Beldur handiegia zegoen orduan, nik behintzat beldu gehiegi nuen. Eta hori ez zait gustatzen, ama-semeeek konfiantza handiago izatea gustatzen zait.

**Orduan, lehen, gurasoen esanari beti amen?**

**Aldaz:** Ez ginen atrebitu ere egiten kontra egiten.

**Eta orduan, nola ezagutu zenuten elkar?**

**Aldaz:** Estropadetan, arraunlaria zen-eta.

**Garate:** Kontxako estropada irabazi genuenean ezagutu genuen elkar, 1952an.

**Aldaz:** Eta ordutik elkarri begira gaude.

**Garate:** Urte horretan bandera irabazi genuen, baita hurrengoan ere. Soilik hiru urte eman nituen arraunean, lanagatik ezin izan bainuen jarraitu.

**Orduan, etxean lanean eta etxetik kanpora lanera?**

**Garate:** Beti lanean. Larunbat iluntzetan pittin bat ateratzen nintzen eta igandetan mezara joaten nintzen.

**Aldaz:** Orduan meza asko egiten ziren. Astegunetan, egunero bi meza, zazpietan eta bederatzietan. Asteburuan, lau.

**Garate:** Orain apaiz bakarra dago eta garai hartan hiru zeuden.

“Beldur handiegia zegoen. Eta hori ez zait gustatzen, ama-semeeek konfiantza gehiago izatea gustatzen zait”



“Gaztelania jakin ez eta erdaraz hitz egin behar izaten genuen, eskolan ezin baitzen besterik hitz egin”



**Garate:** Sanikolasetan ere festa izaten zen herrian. Orduan ere mezetara joan behar izaten genuen, konfesatzera.

**Zer bekatu egiten zenituzten, bada?**

**Garate:** Beranduegi joatea etxea...

**Aldaz:** Lotsagabekeriatan aritu ginela gurasoekin, txokolate pixka bat jan genuela edo *real*en bat hartu genuela...

**Garate:** Lehen horrela zen...

**Aldaz:** Guk ezagutu dugun aldaketa ez dago ezagutzerik. Bai kale aldetik, elizari dagokionez...

**Eta berdintasunari dagokionez? Emakumearen rola zein zen zuek gazte zinetenean?**

**Aldaz:** Gizona lanetik etorri, eta baserritarrak baziren baserriko lanak egiten zituzten; bestela, ez. Emakumea zen afaria jartzeaz eta etxeko lanetaz arduratzen zena.

**Garate:** Gizasemea beti lanean eta emakumea beti etxeko martxa ematen.

**Aldaz:** Gizona beti urrun zegoen, etxetik kanpo. Emakumearen ardura ziren haurrak: eskoleko bilerak, jaten eman...

Azkenean, aita ez balute bezala zen.

**Euskararen egoera ere aldatu al da?**

**Aldaz:** Aurrera pauso asko eman dira, egoera hobea da, bai-

na errezeloa dut gazteek askoz ere okerrago hitz egiten dutela. Esan behar ez diren moduan esaten dituzte gauzak.

**Garate:** Gure bilobarekin gertatzen zaigu hori. Gaizki esaten ditu gauza batzuk.

**Aldaz:** Ni 34an jaiotakoa naiz. Gaztelania jakin ez eta erdaraz hitz egin behar izaten genuen, eskolan ezin baitzen besterik hitz egin. Himnoa kantatu, bandera jarri... Hamaika aldiz esaten ziguten *rojos separatistas, hablen español!* Etxera joan eta amari galdetzen genion ea zer esan nahi zuen horrek, zer jakingo genuen, gaur egun ere ez dakigu eta!

**Eta aisialdia? Gaur egun festarik festa eta oporrak herritik kanpo pasatzen dituzte askok eta askok.**

**Garate:** Ni jubilatatu nintzenean bidaiatu genuen.

**Aldaz:** Zilarrezko ezteiatan Italiatik ibili ginen, Alpeetatik jun eta kostatik itzuli ginen. Gustura ibili ginen.

**Garate:** Jubilatatu nintzenean ere joan ginen oporretara.

**Aldaz:** Bai, baina azkenean, ohitura faltagatik-edo, aspertu egin nintzen oporretan ibiltzeaz. Orain ez dugu bidaiatzen. Hemen gustura bizi gara, 4 seme-alaba dauzkatu eta 9 biloba. Gabonetan guztiok elkartzen gara, mahai handi baten bueltan. Nik kozinatzen dut, baina lagundu egiten naute.



**OSPAKIZUNA**



**50 urte ezkontuta**

Fernando Larrañaga Sarria eta Josefa Hernandez Zambrano 1965eko azaroaren 22an ezkontu ziren Orioko San Nikolas elizan. Aurten bete dituzte, beraz, 50 urte. Argazkia ezkontza eguneko da. Ospa ditzatela urrezko ezteiak merezi duen bezala, senide eta lagunekin. Zorionak!

**HANDIK ETA HIEMENDIK**



“Gure lana entrenatzea eta lehiatzea zela esaten zigun medikuak, beste guztia beren ardura zela eta berataz fidatzeko”

**Miguel Anjel Millares**, Orioko Arraunketa Elkarteko lehen arraunlaria eta entrenatzaile ohia, Berrian, azaroaren 4an.

“Nik angulak maitzen harrapatu izan ditut, Aginagan. Belarria txikiak eta hezurak zituztenez, harrapatu ondoren utzi egin behar izan ditut”

**Dibina Lanberri**, Anguletan aritzen den oriotarra, Euskadi Irratiako Hirigorrian saioan, azaroaren 16an.

**HAIZE BERRI**  
fabrika-jolastua-kaletegia

Plater konbinatuak, bokafak, horniburgesak, rabeak, eguneko menua...

**ostiralean Pintxo pote!**

eta etxera eramateko zerbitzua!

**943 831 623**

Orioko kaledegia, Inbiera 1

**ITZALA**

kartela jokatzeko asopoa

tel. 943 83 12 59

**ITZIAR**

kirolak

Tel. 943 83 31 03

**KOLON TXIKI**

Herriko Euparantza, 4  
**ORIO**

Tel. 943 83 00 44

ile apaindegia

**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea  
Tel. 943 13 47 29  
**ORIO**

**MENDIZABAL**

**ARROZTEGIA**

Nerriko arneiak eta eperlaak

943 831 175      Aitzeri bidea  
645 708 491      Betti-Aiol etxea  
mend@aroztegi.net      20810 Aia-Orio

**Joana Murgiondo**  
Aseguru-agenikoa

**ASEGURUAK**

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnua: 943 13 46 07

**OREKA**  
**FISIOTERAPIA**

Tendinitisak  
Lumbalgia  
Artrosia  
Zefaleak

Masaje terapeutikoa, bentosak, akupuntura, eskuzko terapia, astropapira

**943 13 35 37**  
Aritzaga kalea, 11 Artea

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK

**ROSA**

GARBINE ARRILLAGA  
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43

10% DESKONTUA FAMILIA UGARENTZAT

ttipi

ttapa

943259695

ttipittapa.oihone@gmail.com

Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

**URAITZ**

kurindegia

jantzi-argariak

Enketa, 3      Tfnua: 943 83 16 97

**ASADOR**  
**XIXARIO**

Eusko Gudarien Kalea, 2  
Tel. 943 831 019 - ORIO

# Patxi Danbolini paperezko deia



Iñigo Gaiton

**Aintzeizut mimo ta maitasun guztiyakin tratatuko dala Itxas Tresna markakin sortukoan eozein proiektu. Ohoria añako konpromisoa da hoi gutzat, Patxi.**

Telefonoz deitzekotan nitzan auxe bea zuri kontatzeko, azkenengon alkarrekin eon giñanen zerbait komentau nizun arren. Bakizu, sanikolasak pasa ta geo kultur etxen in nai deun asunto orrei buruz da. KARKARAKOK lau illabetero nei orri bat uzteko delitua kunplitzeue, ta lujo au ematea nija, telefonoz kontaktuko nizuna erriyak e jakin dezan. Ola, ale batzuk geio izango gea zuk esatezun bezela *launartia iten*.

Abenduan llaingo deu proposatu genizun omenaldi txikiya, atsaldeko zazpitan. Oriyoko surf taldeko aixkireontzat ohore izugarriya da zure *Itxas Tresna* marka elkartiana itia. Dudikpe, oixe izangoa aurreantzen taldiak izangoun onda-reik preziatuna, ta saiyatuko gea marka mezi dun prestiji-yuakin mantentzen. Patxaraz artuko deu asuntua, ta ber dun denboakin aztertu ze gauza in leizken, baña aintzeizut mimo ta maitasun guztiyakin tratatuko dala *Itxas Tresna* markakin sortukoan eozein proiektu. Ohoria añako konpromisoa da hoi gutzat, Patxi.

Kultur etxen jende pixkat juntatuko geala aproetxatuz,

aurreko negun grabatu genun *Erreplika* bideua re botako deu. Oaindik errin eztu jende askok ikusi, ta iruitzezait era-erako aukera dala Oriyon estreñatzeko. Lengo eunen Joxe Mari zure illobakin in nun topo, ta esantzian animauko zala bertan mikrofonua artu ta Oriyoko surf kontu zarrei buruz itzeitea. Bideon 2 miñutu exkax eskeñi nizkiyon, ta iruitze zait jendiak gustoa entzungoitula beak gaztetan plaian bizitako anekdotak. Mikel Agotere azaldukoa, ta bideon sortu genun tablare eamango deu bertan ikusteko. Nik uste ordu-betexko baten borobilduko deula saiyua, tamaña earren.

Portzierto, lengon Patrickek San Franciscoko Goethe instituton montau dun erakusketako argazki bat biali zian. Zure erretrato bat sartu du exposiziyon, Thread liburun agertzeana. Hantxe jarri zaitu berriz paret txurin, munduko surfista ezaunenekin batea. Berrize Ameriketa biajatuezu, Patxi!

Testua itxi berra dakat, laun. Besarkada haundi-haundi bat! Ta oriyotar guztiri, abenduko bigarren ostialen kultur etxea azaltzeko inbitaziyua. Earra izangoa!

**URANGA**  
burdindegia  
Opari, menaje eta erremintak  
fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari. 5

 **Sagasti**  
LEIHOAK  
ROBERTO SAGASTI  
Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihok.com  
Arrantzaile kalea, 65  
20810 ORIO (Gipuzkoa)



Ibai Jauregi

## Greziara, laguntzera

**Boluntario talde on bat elkartu gara, baina bidaia eta egonaldia garestiak izanik, ez dakigu zenbat denbora egongo garen han. Laguntza behar dugu, laguntza behar dute!**



zken hiltzeteotan komunikabide guztietan izan da aipamen bat, gutxienez, Greziako kostan gertatzen denaren inguruan. Turkiatik datozen errefuxiatuz beteriko itsasontzi bat irauli edo ondoratu da, eta hainbat emakumezko, gizonzko eta ume ito dira gaur ere. Berriak ez gaitu harritzen, eguneroko ogia baita. Beren lurraldean bakean bizitzeko segurtasuna eta ilusioa galtzean ez dute beste aukerarik. Atzean uzten ari diren guztiari begiratu gabe herrialde itxaropentsuago baten bila abiatzen dira.

Beti omen da bateren bat besteen zorigaitzetik irabazia atera nahi duena, eta kasu honetan, nola ez, bada paper hori betetzen duenik. Mafiek milaka dolarren truke itsasontziko pasea lortzen die migratzaile hauei, baina ez pentsa ferrian gurutzatzen dutenik Egeo itsasoa. Arrantza ontzi zaharrak edo nola halako *fuerabordak* dira kasu honetan, baina 20 plaza dituenari 40 sartzen badizkiote bikoitza irabaziko dute, eta besteez arduratzen ez denari bost axola Greziako kostara iristen ez badira ere.

Hildakoen kopurua goraka zioan heinean lagunartean gaitu honen inguruan hitz egiten hasi ginen. Irtenbideren bat eman zitekeela pentsatuaz taldetxo bat osatu genuen eta pentsamendu hau garatzen hasi. Urteetan formatutako uretako sorosleak eta patroio profesionalak gara talde honetan, euren artean bi oriotar. Boluntario gisa ordu asko sartutakoak eta horrelako tragedia bat ikustean bihotzaren deiak isiltzen ez dakitenak, erantzun egin behar honi! *Salvamento Maritimo Humanitario* izeneko GKEa sortu dugu gure proiektua formalizatzeko eta abenduaren leian sei pertsonako talde bat Greziako Lesbos uhartera abiatuko gara bertan itsas salbamendu lanak egiteko. Hiru asteko errelebuak egin ez denboran ahal den guztia luzatu nahi dugu egonaldia ahalik eta bizitza gehien salbatzeko. Horretarako boluntario talde on bat elkartu gara, baina bidaia eta egonaldia garestiak izanik, ez dakigu zenbat denbora egongo garen han.

Laguntza behar dugu, laguntza behar dute! Gure proiektuaren inguruan gehiago jakin nahi baduzue, bisitatu gure web horria [www.salvamentomaritimohumanitario.org](http://www.salvamentomaritimohumanitario.org) edo gure facebooka. Bertan diru laguntzak emateko aplikazioa ere badugu eta ordenagailuarekin abila ez denak banku transferentzia bat egin dezake 3035 0235 2223 5003 8982 kontura. Mila esker zuen laguntzagatik uretan daudenen partetik!



Santi Barranco  
Telf.: 618581398  
Artzaga, 2 - 2ª eskerria  
20810 Orto (Gipuzkoa)

**Seguros  
Bilbao**  
Orioko ordezkaria  
e-posta: [sbarranco@segurosbilbao.com](mailto:sbarranco@segurosbilbao.com)



**ANORGA TXIBI S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

- komertzial instalazioak - beira bikoitza  
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak  
- ispi luak - barandak - kristal mota guztiak...

Orla Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

# Hezur eta haragi, gordina eta zaporez betetakoa

## Kritika Mursego

**Kontzertua**, azaroaren 6an, Maite Arroitauregik, Mursegok, kontzertua eskaini zuen Orioko kultur etxean.



Mursego Orion eskaintako kontzertuko une batean . @IKERIB

Aho zabalik, txundituta edo *jotama*. Kultur etxean bildutako ikusleen aurpegiak horrela definituko nituzke. Mursego inoiz ikusi, entzun eta probatu gabe egongo ginen gehienok; hala zirudien, behinik behin. Berezia zela abisatuta geunden, baina kontxo! Ez nuen horrelako berezitasunik espero!

Emanaldian zehar lo hartuko nuen beldurrarekin atera nintzen etxetik; eta, kultur etxetik, aldiz, superestimulatuta, loa parrandarako gogoz neukala.

Asko ikasteko ikuskizuna iruditu zitzaidan. Musika-konposaketa gordinak ezagutzeko aukera eskaini zigun; erritmo eta soinu ezberdinen nahasketak egiteko modua plazaratu. Nahasketa oso pertsonala dela ikasteko parada aparta izan zen. Barruan bor-bor daukana botatzen du berak. Hartzaileak bere erara interpretatuko du eta gustatzen zaion ala ez erabaki. Gutxitan –edo sekula– egiten dugun ariketa landu genuen.

Kontzertura joan ezin izan zuen lagun bati esan nion bezala, bizitzan behin ikusteko eta entzuteko modukoa da. Behin, besterik ez bada hurbil zaitez bere emanaldi batetara.

LORE BERASALUZE

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**

Pelotari 5, Orío  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

**BELOKI AUTOMOZIOA**  
**TEL. 606 06 38 60**

Aukeratutako ibilgailuak  
Km.0-koak  
3-4 urtekoak  
Merkeak

Ibai Ondo, 3 - behea ORIO

BODEGAS

*Gailur*

9100 BLANCO & ENRIQUE  
Tel./Fax: 945 00 91 88  
www.bodegasgailur.com

Arabaer Enriquet

**ZUDUGARAI**

Gabrielko Tardana

Tel. 945 83 03 80  
Fax 945 83 39 82  
tsukizabazako@tsukizabazako.com  
www.tsukizabazako.com

# Ikusleen eta artistaren arteko konplizitatea

## Kritika Mikel Urdangarin

Kontzertua, Kultur etxean kontzertua eman zuen hilaren 20an.



Jendez gainezka zegoen kultur etxean Urdangarinen kontzertuan.

Artidatik zuzenean, erdi presaka iritsi nintzen aurreko ostiralean Mikel Urdangarinek Kultur Etxean eman zuen kontzertura. Aretora iritsi eta espero nuena baino adin aniztasun handiagoa topatzeak poztu ninduen. Baita uste nuena baino gazte jende gehiago inguratzeak ere.

Kontzertua polita izan zen, atsegina. Betiko abesti ezagunez gain abesti berriak ere kantatu zituen Urdangarinek. Ondo egon zen hori, betiko kanta tipikoetatik ateratzeko, beritasun puntu bat emateko.

Abestien artean azalpentoak ematen zituen, bakarrizketa txikiekin, kantu bakoitza sortzerakoan inspirazioa eman ziona edo istoriotxoak kontatzeko. Publikoaren irribarrea sortzea ere lortu zuen momentu batzuetan, kontatutakoarekin.

Kontzertua dinamikoa izan zen, gertukoa, erraza. Publikoak gustura zegoela nabaritzen zen, baita abeslaria bera ere. Atmosfera goxoa sortu zen aretoan –esenografiak ere lagundu zuen, egia esan–, konplizea. Pozik irten ginen, errezial ederra ikusi genuen sentsazioarekin.

ANDER GARCIA

**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascorrajerem@igleias.es  
2010 ORO

- ATAK IRUKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATAK (XTEKO MALOKUEN) ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA

**KAUJA**

TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, KAJUARA  
BOKATA EDERRAK JATERA

Arizarko portua 35, beñea  
TEL: 943 840 080

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

**PIZZERIA KALETA**

ARRANTZALE MALEA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46

**Katu Horia**  
 OINAGARITZA BIRIBURU  
 ESTROPALARI, 10  
 20810 ORIO  
 tel. 943 11 66 99

LARRIARRIAK  
 868 80 11 20

www.katuhoria.com



**Imanol Ilarramendi**  
 Aia (Gipuzkoa)

**KORTABERRI**  
 arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



**Azkue**



Tf: 943 130 438

**Azkue**

**arkaitz taberna**  
 orio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
 Giro ezin hobea


**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

tel/fax: 943 89 00 69  
 Bikoia kalea, 4. 20100 ZARAUZ

**URBIDE**.com

ITURGINTZA, BEROGINTZA  
 GASA\_BAINU ERAKUSKETA

Presupuestak kopiatzeko gabe



**LEUNDA OKINGEDIA**

**ORDUTEGIA**  
 ASTELEKINETIK - LARUNBETERAK 7:00 - 20:30  
 IGANDI ETX - XI-EGUNETAN 7:00 - 13:30

Tel: 943-99.00.67



**libe**  
 dietetika  
 elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 - ORIO  
 [ sarrera Amaraule kaleak ]

943 93 64 94 - 697 23 86 56  
 libe@arrenduak@gmail.com

*Lizaso*  
 dekorazioa

Tf: 943 83 07 84  
 Faxa: 943 24 87 15

**Eusko Gudari, 48**




**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943.572083  
 FAX - 943.571190  
 i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO  
 IBAI ONDO 13  
 20810 ORIO



**J. MAIZA AROZTEGIA**  
**LEIHO ISOLATZAILEAK (PVC)**

- \* INSTALAZIO OSOA
- \* OSZILOBATIENEA
- \* ALUMINIOZKO PERTSIANA
- \* BARRUKO ETA KANPOKO BUKAERA
- \* BEIRA BIKOITZA ETA ISOLATZAILEA 4-16-4


70 x 130 **420€**

120 x 130 **530€**

120 x 220 **630€**

**TEL. 690 99 39 32**  
**943 30 07 88**  
[www.carpinteriamaliza.com](http://www.carpinteriamaliza.com)  
[info@carpinteriamaliza.com](mailto:info@carpinteriamaliza.com)

**ALUMINIOAN ERE AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE**





# Behar al da ingurumen teknigaririk Orioko Udalean?



Motondoko argazki panoramikoa . KARKARA

Ez da politikarien ahotan lehen aldiz ibilitako gaia. Sarritan eztabaidatu dute ingurumen teknikari baten beharraz, baina, oraingoan, gaia ahoz aho ibili ordez mahai gainera eraman nahi dute.

## 10 teknikari udaletxean

Euskara teknikaria, kirol teknikaria, turismo teknikaria, kultura teknikaria, ongizate teknikaria, diruzaina, idazkaria, aholkulari juridikoa, arkitektoa eta arkitekto teknikoak; hamar guztira.

Horiek dira momentu honetan udaletxean dauden teknikariak. Hauteskunde bezperako mahai-inguruan ere aipatu zuten nola herritarrek, hala politikari batzuek, ingurumen teknikari baten beharra.

Ingurumen teknikari bat kontratazkeak 60.000 euro inguruko kostua izango luke, gizarte aseguruia barne. Dena den, Madrildik datorren arauak herri bakoitzeko biztanleriaren arabe-

rako teknikari kopurua zehazten du.

## Ingurumena batzordean lantzen

Orioko Udala sei lan batzordetan banatzen da. Horietako bat Hirigintza, Ingurumena eta Gizarte Ongizatearen batzorde informatzailea da.

Batzordeburua EAJ alderdiko Angel del Hoyo da. Ordezkoa Aitziber Campos da, eta taldea osatzen duten gaintzeko kideak Gotzon Igoa, Miriam Uranga eta Ana Priede dira.

Ingurumenari dagozkion ondorengo araudiak dira udal eskumenekoak: ur zikinak jaso eta arazteko baldintzak zehazten dituen Uraren Ziklo Integraleko ordenantza, zarata eta bizikidetzaz arazoak erregulatzeko Ostalaritza ordenantzak, lurzoru hiritarreen eta hiritartu ezin dena babesteko neurriak zehazten dituen Orioko Plan Orokorra, Orioko Agenda 21a eta Orioko udalerriko argi-indar kontsumoa gutxitu eta argi kutsadura murrizteko plangintza.

Urte bukaerarako Orioko mapa akustikoa izatea ere aurreikusten du Udalak, zarata mapa eta neurri zuzentzaile desberdinen beharra zehaztuko ditu mapak.

Horrez gain, udal eskumenekoak ez diren, baina bete beharrekoak diren beste hainbat araudi daude: hirigintza eta lurzoru legea, itsasertzeko legea...

## Udal eskumeneko arau hausteak

Bereziki bi dira ingurumen esparruan egiten diren udal eskumeneko arau hausteak: tabernetako ordutegi eta zarata mailak ez dira behar bezala betetzen, eta urbanizatu ezin den lurzoru ezkutuko jarduerak egiten dira. Udal idazkariak espedienteak bukaeraraino ez emateari egotzi dio arau hauste hauen errua, araua ez errespetatu arren, isunak ez baitira jartzen.

Labur esanda, hanka motz ikusten dute ingurumenaren gaia Udalean eta arazolari irtenbidea bilatu nahi diote.





EAJ

### Teknikari baten beharra dela eta

Ez dugu ingurumen teknikaririk, ez baikara 10.000 biztanletik gorako herrira iristen, eta horiek izaten dute. Hori legez arautu gabe dago, udal bakoitzak bere herriaren ezaugarrien eta beharren baitan egituratzen baitu lan taldea. Ingurumen teknikari baten zereginetako bat zarata, kutsadura eta abarren kontrola da baita zaborren kudeaketa bera ere. Orion kutsadura sortzen duen jarduera handirik ez dago, jardueren tramitazio eta kontrola aparejadoreak egiten du. Mankomunitateak Ingurumen teknikaria du eta horrek aholkularitza lana burutzen du beharrezkoa denean. Gaikako zabor bilketa ere kudeatzen du eta errefusaren zabor bilketa bateratzea lantzen ari da. Babestuta dauden eremuen aholkularitza ematen dute dagozkien ingurumen eskumenen baitan, bai Aldundiak, bai Eusko Jaurlaritzak. Hala dagokionean, haien teknikariek, txosten lotesleak egin behar izaten dituzte. Hau guztia kontuan izanik, Ingurumen Teknikari baten beharrik Ez dagoela pentsatzen dugu.



Orain

### Ingurumena, gure gurea

Ordenagailua, kotxea, kirola, industrialdea eta, non geratzen da ingurumena? Askotan ikusezina eta batzuetan ezinikusiarrena egiten dioguna. Baina hor dago eta hor gaude gu berarekin. Gorputz atalekin gertatzen den bezala, falta dugunean -airea, ura, hondarra...- konturatzen gara zein garrantzitsua eta beharrezkoa den.

Ingurumenari buruz arduratu behar dela baten bat udaletxean? BAI. Ingurumen teknikari lanpostua sortu behar dela? EZ. 5.000 biztanletik 7.000ra duten hamaika udaletxe daude Gipuzkoan -Aretxabaleta, Astigarraga, Deba, Lazkao, Lezo, Mutriku, Orio, Urnieta, Urretxu, Usurbil, Villabona-. Guztiok guztira 103,6 teknikari dute, batzaz bestekoa 9,4. Orioko udaletxeak 13 ditu. 2002an udaletxeko *giza baliabideen arrazionalizaziorako egitaraua* burutu zen, langileen lanak eta funtzioak definituz. Hamahiru urte pasata eta 1.000 biztanle gehiagorekin horretara jo beharko genuke.



EH Bildu

### Eskertuko dugu

2011-2015 legealdian ingurumen gaiak behar duten trataera izan dute. Topagune Berdea eta Hondakinen Mahaia sortu gedituen eta handik ateratako proposamenak dira kultur etxe aurrea ezinduentzat eta Ikastola eremua oinezkoentzat egokitztea, baita asteburuetan Goiko Kalen eta plazan oinezkoei lehentasuna ematea ere. Baliabideak handituta gehiago birziklatu dugu, baina ez %65a. Auskalo nola gauden, ehunekoaren kartela preso baitauka alkateak. Organikoa bereizita auzo konposta egiten dute 50 bat herritarrek 4 guneeetan. Motondo hezegunea berreskuratzeko dirua lortu arren Aranzadik egindako plana garatzeke dago, mahaigainera etorriko ez diren diru itzulketen zain. Hondartzen egoera hobetu daiteke. Plan Orokorra diseinatzen ari gara orain eta guk ingurumena errespetatuko duen plana defendatuko dugu, ez gara adreiluzaleak. Gai pila martxan eta ingurumen gaietan trebatutako teknikaririk ez. Denok eskertuko dugu etorkizunean.



PSE-EE

### Ingurumen teknikari baten beharra

Zergatik behar du Oriok ingurumen teknikari bat? Hona hemen arrazoi sendoak, garrantzitsuak:

- Kudeatu beharreko ingurumen gaiak asko eta garrantzitsuak direlako, eta horretarako beharrezkoa da profesional bat.
- Ingurumen arloan ezagutza duen teknikariak lana egokiago egingo duelako. Egun beste arloetako teknikariek lantzen dituzte ingurumen gaiak, baina Orio erdi mailako herria izaki, teknikari bakarrak bi alorreko gaiak bideratzea zaila da.
- Kontserbazio Bereziko Gune bat dugulako. Gune honen kudeaketa Udalari ez badagokio ere, espazio hori dagozkion helburuak betetzen direla zaintzea bai dagokio Udalari. Motondorako Aranzadik egindako plana garatzea da lehentasuna.
- Hondakinen kudeaketa herrian puri-purian dagoen gaia delako eta badelako garaia gai horri ganoraz heltzeko.
- Plan Orokorra idaztera doan herri batean ingurumen irizpideak betetzen direla bermatu behar delako.



Mainerri Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 · 20810 · Orío · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

**PERTSIANAK**  
AKO MAZ



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00

**XS**

obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
eraikinen mantenua

arkitektura

borja agirresarobe lapetegi  
herriko-barra 6, behea  
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
xs@xsarkitektura.com

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

HEZKUNTZA  
**PATXI OLIDEN**  
HEZKUNTZA

**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaiki, odolki,  
txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

**Portu ERRETEGIA**

Santo Erreka Auzoa, 4/6  
943 89 44 34  
20809 AIA-ORIO

*karrikak, karrosak, autobusak  
Auzoko erabak eta erabak...*

**sinergia** FISIOTERAPIA  
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577 685 718 595

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

**INDO** Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4  
Tel. 943 894 024  
Fax. 943 130 144  
20809 AIA - ORIO



## ■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

# Irteera Lizarrara!



Urriaren 22an eta 23an Lizarrara joan ginen 4., 5. eta 6. mailakoak lo egitera. Autobusean Urbasara joan ginen, han orientazio proba bat egin genuen. Jarraian autobusean sartu eta Lizarrako kanpinera joan ginen. Iritsi ginenean berehala bazkaldu eta jolastera joan ginen. Arratsalde osoa jolasean pasa ondoren 20:30ak aldera afaldu egin genuen. Afaldu ondoren, 22:00rak aldera diskoteka egin genuen.

## ■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

# DBHrako sarrera



LHrekin alderatuta desberdina da. Azterketa gehiago dago eta ikasteko modua desberdina da. Ikasgai gehiago daude eta irakasle kopurua ere asko aldatu da. Lanaldi jarraia dugu, baita azterketa astea ere. Gela ezberdin gehiago dago: estudio gela, liburutegia, laborategia... LHn bakoitzak bere gela zuen eta ikasgai guztiak han egiten genituen soinketa izan ezik. Lehenengo egunak arraro samarrak izan ziren, baina jadanik ohitu gara. Hala ere, gustura gaude.

## ■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

# Zuku goxoak benetan!



Ostiralean ingeleseko klasean ederki pasatu genuen *fruit smoothie*ak egiten. Irakasleak fruta eta zuku-makina ekarri zituen, bi taldetan banatu ginen eta fruta zuku goxo-goxoak prestatu genituen. Barre ere egin genituen; bati sagarra mozten ari zela, airean atera zitzaion; besteari mangoa zuritzen buru belarri zebilela, labana okertu zitzaion... Azer nolako sukaldariak! Hemendik aurrera etxean prestatu beharko ditugu, osasuntsuak baitira.



Ainhize, June eta Suhar

## Gure gela

**G**u 5. eta 6. mailako ikasleak gara eta gure gelako zeregin asko ditu eskolan. Adibidez: konpostajea, paperontzia hustu, loreak ureztatu, asanbladak prestatu, jolasgaraietako egutegia egin, komunak konpondu...

Konpostajea eskolako konpostara organikoa eramaten dugu, bertan elikagaiak bota eta nahastu egiten ditugu. Zisare izeneko programa batean hartzen dugu parte, bere konpostako tenperatura, hezetasuna eta PHa neurtzeko baliabideak eskaini dizkigute. Paperontzia hustu ere egin behar izaten dugu, gela bakoitzeko paperontziak bildu eta eskolako paperontzi handira botatzen ditugu.

Loreak ureztatu behar dira ostiralero, gure gelako loreak eta beheko pasabidekoak ureztatzen ditu tokatzen zaion bikoteak. Hilero asanbladak egiten ditugu, bertan eskolako erabakiak hartzen ditugu eta arazoak konpondu. LHko ikasle guztiak hartzen dugu parte.

Asteazkenetan baloirik gabeko eguna izaten da gure eskolan, eta guk antolatzen dugu. Asteazkenero hiru jolas aukeratzen ditugu eta eskola aurrea, futbol-zelaia eta frontoia erabiltzen ditugu jolasteko.

Komunak konpontzea ere tokatzen zaigu, eskuak sekatzeko paperak komunak ataskatzen ditu eta papera lurretik zehar egoten da. 5. eta 6. mailako ikasleok arduratu behar izaten gara ardura hauetaz eta egia esan ondo pasatzen dugu ardurak egiten, klaseak galtzen ditugulako.



## Kultura

### Berriz ere bazterrak harrotzeko prest

Larunbat honetan Gure Bazterrak Festibala izango da, bigarrenenez, Orion. Antolatzaileek ez dute gogo faltarik eta egun handiaren esperoan lanpetuta dauden arren. Iazkoak harrera ona izateak eragina izan du aurten bigarren alea egiterakoan, baina, hasiera-hasieratik zuten asmoa Gure Bazterrak festibala urteroko zita izateko eta kontzertuetara joateko ohitura sortzeko Orion. Beren hasierako kartel edo asmoa %70ean bete da. Aldaketak egin behar izan dituzte, baina amaierako emaitzarekin gustura daude. Kartel anitza osatu dute, estilo ezberdineko bost euskal talde elkartuta. @karkara.eus/orio/1448027110491



## HASI TXIOKA

### Festak iristear dira! Txiokatu #SN15 traola erabilia!



### Gizartea

#### Parisko atentatuak gaitzesteko elkarretaratze isila egin zen Orion

Azaroaren 16an bost minutuko elkarretaratzea deitu zuen Udalak. izan ere, Orioko Udalak bete-betean gaitzesten ditu Parisen ostiralean izandako atentatu izugarriak eta une latz honetan, besarkada solidarioena eta hurbiltasun-sentipen sakonena bidali nahi die Parisko hiriarri eta Frantziako herri osoari.

### Gizartea

#### La Caixak 2.000 euroko laguntza eman dio Aiako Hitzez Elkarteari

Espainiar estatuan 500 milioi bideratzen dituzte proiektuetara. Kantitate horretatik, 2.000 euro bideratu dira Hitzez Elkartera. Laguntza horrek elkartearen lana aitortzeaz gain, emakume baserri-tarren alde lanean jarraitzeko babesa ematen die. Esker ona adierazi dute Hitzez elkarteko kideek La Caixari. Batetik, ekarpen ekonomikoagatik; eta, bestetik, Aitor Hoyosek proiektuarekiko adierazi duen interesagatik eta izan duen jarreragatik.

### Gizartea

#### Indarkeria matxistari ez esateko bildu dira oriotarrak herriko plazan

Azaroaren 25a emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna zela eta, bi ekimen antolatu zituen Galtzarri elkarteak. Hasteko, *indarkeria matxistari ez!* lelopean, elkarretaratzea egin zuten plazan. Horren ondoren Martxan dokumentala proiektatuko zuten Salatxo aretoan. Filmak mundu osoko emakumeek jasaten duten indarkeria matxisten inguruko hausnarketa egiten du.



jon artano izeta @jonartano · aza. 14

Urdanetako (Aia, G) Maiaga Behekoan bizi den familia etxetik bidalia izateko arriskuan, kontakizuna bihar #amarauna

You, EITB Albisteak, Euskadi Irratia and 5 others



Egoitz Eizagirre @egoitzeizagirre · aza. 7

Plenotik asteterdira bi hegazkin hegan #motondon! #SoldataJustifikatzea @karkaraeus @oriokoeajpnr @orioehbildu @orainorio @OriokoUdala



Jon Azkuejak Berbiotua

arkaitzib @arkaitzib · aza. 14

@jonazkue25 Hau dek hau partidua!! Oindik subidoiak!! Hori jokau!! Zorionak Jon.gaurre rezitala emandek!! Bide onetik giztik.Eutsi horr!!



Jabier Zabala @jabier · 22 ordu

Eusko Gudariak kantuaren sortzaile oriotarraren istorioa, Andoni Egañak ederki kontatua berria.eus/paperekoa/1973...



## Politika

### Amaitzear daude frontoiko eta auzo elkarteko lanak

Elkano auzoko frontoia amaitzeko 7. kreditu aldaketa onartu zuten Aiako azken udalbatzarrean, aho batez. 49.000 euro bideratuko dira aiara auzoko frontoia eta lokala amaitzeko. Elkano Kultur Elkarteari frontoi ondoko lokala kontzesio administratibo bidez ematea erabaki zuten. Kontzesio hori 30 urtekoa izango da eta auzo elkarteak urtean 1.000 euro ordainduko dizkio udalari urtean. Mantenua, argindarra eta garbiketa gastuak elkartearen esku geratuko dira.

@karkara.eus/aia/1447322645790



## Gizartea

### Zortzi hilabeteko espetxe zigorra Igeldoko arduradunari

Orain gutxi, Igeldoko zentroko arduradunari animaliei tratu txarrak ematea leporatu diote eta fiskalak urte bateko kartzela zigorra eta hiru urteko gaitasungabetzea eskatu du. Eta azaroaren 9an, Donostiako epaitegian akordioa adostu zuten fiskalak, akusazio partikularrak eta defentsak. Hiru urteko inhabilitazioa ezarri diote eta 900 euroko kalte-ordaina eman beharko dio txakur baten jabeari. Hasieran urte beteko espetxe zigorra eskatzen zuten fiskalak; azkenean, zortzi hilabete izango dira.

@karkara.eus/orio/1446802250624

## Ortzaikako San Martin jaietako argazki bilduma



@karkara.eus/orio/  
1447670958898



## Santa Zezilia ospatzeko, kalejira eta kontzertua



@karkara.eus/orio/  
1447866336256



## Memoriaren Egunean, ez daudenez oroitzen



@karkara.eus/orio/  
/1447161859834



AGENDA

# Orio

- Azaroaren 27an, Gure Bazterrak ekitaldia, 13:00etan Tragoxkan, 14:00etan Salatxon, 18:00etan Kalarin eta 19:30ean Orioko Karela kiroldegian. Abenduaren 3an, literatur lehiaketako sari banaketa, 19:00etan, udal batzar aretoan.
- Abenduaren 11n, *Independentzia helburu, zein da bidea?* mahai-ingurua Vilafranca del Penedeseko alderdi politiko-etako ordezkariekin, 18:30ean Salatxo aretoan. Sarrera doan, borondatea eskatuko da. Ondoren, luntxa Galtzarri elkartearen 5 euroren truke.
- Abenduaren 18an, Herribil dantza taldearen emanaldia Harribil Dantza Taldearen eskutik, 22:00etan, Karela Kiroldegian.
- Abenduaren 20an, Jostailuak trukatzeko eguna Herrio Natur Taldearen eskutik, 10:30etatik 15:00etara, herriko plazan.

# Aia

- Azaroaren 29a, Gure Itsas Paisaiaren hitzaldi ibiltaria, 11:00etan, Ubegun industriagunetik abiatuta.

ZAINZAKO BOTIKAK

- ABENDUA:
- 1ean, G. Artiñano
  - 2an, Iriarte
  - 3an, Zulaika
  - 4an, Azaldegi
  - 5 eta 6, Larrañaga
  - 7an, Lasa
  - 8an, Mutiozabal
  - 9an, Lasa
  - 10ean, Mutiozabal
  - 11n, Lasa
  - 12 eta 13, Iriarte
  - 14an, Azaldegi
  - 15ean, Zulaika
  - 16 eta 17, Lasa
  - 18an, Mutiozabal
  - 19 eta 20, Etxeberria
  - 21etik 23ra, Lasa
  - 24 eta 25, Larrañaga
  - 26 eta 27, G. Artiñano
  - 28an, Azaldegi
  - 29tik 31ra, Lasa

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8.  
943133183 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17.  
943832398 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12.  
943832970 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16.  
943133814 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza.  
943830936 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17.  
943134019 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41  
943133994 Zarautz

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	07:55 eta 20:28	01:34 eta 14:10	☾
02	08:48 eta 21:27	02:25 eta 15:05	☾
03	09:50 eta 22:35	03:23 eta 16:07	☾
04	10:59 eta 23:45	04:29 eta 17:14	☾
05	12:08 eta ____	05:39 eta 18:17	☾
06	00:47 eta 13:06	06:41 eta 19:10	☾
07	01:37 eta 13:54	07:34 eta 19:56	☾
08	02:19 eta 14:36	08:18 eta 20:36	☾
09	02:57 eta 15:14	08:58 eta 21:14	☾
10	03:33 eta 15:50	09:36 eta 21:51	☾
11	04:08 eta 16:26	10:13 eta 22:27	☾
12	04:43 eta 17:02	10:50 eta 23:03	☾
13	05:18 eta 17:39	11:28 eta 23:41	☾
14	05:56 eta 18:19	12:08 eta ____	☾
15	06:37 eta 19:02	00:22 eta 12:51	☾
16	07:22 eta 19:51	01:06 eta 13:39	☾
17	08:13 eta 20:48	01:55 eta 14:34	☾
18	09:14 eta 21:55	02:53 eta 15:36	☾
19	10:25 eta 23:10	04:00 eta 16:45	☾
20	11:14 eta ____	05:13 eta 17:55	☾
21	00:23 eta 12:52	06:25 eta 19:01	☾
22	01:28 eta 13:55	07:30 eta 19:59	☾
23	02:24 eta 14:50	08:28 eta 20:51	☾
24	03:14 eta 15:39	09:19 eta 21:39	☾
25	04:01 eta 16:25	10:06 eta 22:23	☾
26	04:44 eta 17:08	10:51 eta 23:05	☾
27	05:26 eta 17:50	11:33 eta 23:46	☾
28	06:06 eta 18:30	12:15 eta ____	☾
29	06:46 eta 19:10	00:26 eta 12:56	☾
30	07:26 eta 19:52	01:07 eta 13:38	☾
31	08:09 eta 20:37	01:50 eta 14:23	☾

WWW-FOTORAMIRO.COM  
943 83 10 48  
610 697 668

GABONETAN  
OPARITU  
ARGAZKIAK

75 m<sup>2</sup>ko **PISUA SALGAI**  
Alan, Santio Errekan kokatua


Prezioa: 165.000 euro  
☎ 607 510 356

Hiru logela ditu, sukalde handia, egongela eta bainugela.  
Horrez gain, komunikate-lorategia eta kanpoko aparkaleku pribatua.

Telf: 943 83 58 45  
fotorosanaarruti@gmail.com

ROSANA ARRUTI

# MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA

 **EROSKI** / online  
zurekin



EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

[eroski.es](http://eroski.es)

lurraldearen  
**%100** -era  
iristen gara

# SOFAK - ESKAINITZA BEREZIA

2016ko OTSAILAREN BUKAERA ARTE



**ANDU ALTZARIAK, S.L.**  
ERREFORMAK, ALTZARIAK, KOLTXOIAK

Telf. 943130999 - 695783043 andualtzariak@euskalnet.net Eusko Gudari,10 Orto